



## ARARTEKOAREN ERAKUNDE ADIERAZPENA, FAMILIEN NAZIOARTEKO EGUNEAN

*2017ko maiatzaren 15a*

Familien Nazioarteko Eguna dela eta, Arartekoak gogorarazi nahi du **gizarte osoaren erantzukizuna dela, eta, zehazkiago, botere publikoena, familien beharrei erantzutea**. Egiaztatuta dago familiei laguntzeko eta beraien bizi-kalitatea eta ongizatea hobetzeko politikak sustatu eta finkatzen dituzten gizarteek **rmodu baliotsu eta eraginkorrean laguntzen dutela gizakia garatzen eta ekonomia eta gizartea batzen**.

Horren haritik, **nahitaezkoa da politika publiko guztietan familiei laguntzeko ikuspegia aintzat hartzea**, laguntza hori familien egoera eta osaera ezberdinek sortutako beharretara egokituz eta zeharkako ikuspegia sendotuz, **politika sozial eta ekonomikoek euskal familietan duten eragina neurtu ahal izateko**.

Beraz, Arartekoak euskal botere publikoei eskatzen die familiei erabakitasunez lagundu diezaietela, haiei bitartekoak eta diru-baliabideak emanez, beraien erantzukizunak eta gizartean duten funtsezko eginkizuna errazago bete ditzaten, eta, oro har, **neurri publikoak sustatuz**, honako hauek **ziurtatzeko**:

- Familiak duen balioa babestu, aitortu eta bultzatzea, izan ere, arreta materiala, zainketak eta giza-afektibitatea elkartasunez trukatzeko diren belaunaldien arteko esparrua da, eta bertan laguntzen zaie eta biltzen dira belaunaldi eta adin ezberdineko pertsonak bizi-bilakaera osoan.
- Familiek baliabide nahikoak jasotzeko eskubidea, gizartean duten zeregin garrantzitsua bete ahal izan dezaten, familia-kide guztien duintasuna bermatuz.
- Gurasoek seme-alabak hazi eta hezteko duten betekizuna aitortu eta babestea, bereziki lagunduz seme-alabak dituzten familiei, arrazoi ezberdinengatik gehien behar dutenei: guraso bakarreko familiak, homoparentalak edo familia ugariak. Haurrik gabeko gizartea etorkizunik gabeko gizartea da, eta oraingo egoeran oso beharrezkoa da –arrazoi horrexegatik- familia horien alde irmoki apustu egitea.
- Adin handikoak babestea, eta beren seme-alabei eta bilobei ematen dieten sostengua gizarte-balio garrantzitsua dela aitortzea.
- Familiek gaixoak edo mendekotasuna duten pertsonak zaintzen egiten duten lana aitortzea eta babestea. Familia horiei laguntzeko orduan, ezinbestekoa da agintari publikoek gehiago edo biziago esku hartzea, eta beharrezko



neurriak hartzea ere bai, pertsona horiek arreta duin eta hurbila jasoko dutela bermatzeko.

- Beharrezko baliabideak jartzea haurren pobretasuna bukarazteko, familia-pobretasuna desagerraraziz eta gizartean, ekonomian eta hezkuntzan zenbait neurri ezarriz, pobretasuna belaunaldi batetik bestera eskualdatu ez dadin.
- Familien ongizatea hobetzeko asmoz, diru-laguntza eta zerga-neurri gehiago eman daitezten sustatzea, batez ere familia horietan seme-alabak baldin badituzte, edota gaixoak edo mendekotasuna duten pertsonak.
- Zenbait neurri bultzatzea hezkuntzatik lanerako bidea errazteko, baita ere gazteek egonkortasun ekonomikoa eta lana lor ditzaten, familia berrien proiektuak eta haien egonkortasuna ahalbidetzeko.
- Neurri gehiago hartu eta bultzatzea familia eta lana bateragarri egiteko eta gizon-emakumeek elkarrekin parteka ditzaten familia-erantzukizunak.

**Arartekoa ziur dago familiei laguntzea oso modu eraginkorra dela pertsona bakoitzari bere bizi-garapenean laguntzeko, edozein adinetan eta egoeratan. Azken batean, funtsezko baldintza da gizarte-justizia erdiesteko, eta botere publikoek hori bilatu behar dute, eskura dituzten bitarteko guztiak erabiliz.**